

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

##### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Behin betiko onespina ematea udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) egin nahi den xedapen-aldaketari**

Hau erabaki zuen Udalbatzak 2021eko urriaren 22an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespina ematea udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den xedapen-aldaketari.

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko udalerriko nekazaritza-eremuk berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko Gasteizko HAPOan egin nahi den xedapen-aldaketa dela eta, alderdi hauek hartu behar dira aintzat:

Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariaren 2018ko urriaren 1eko probidentzia bidez abiarazi zen tramitazioa, eta nahitaezko txostenak eskatu zitzaizkien ingurumen organoari eta Sustapen Ministerioaren Abiazio Zibileko zuzendaritza nagusiari. Halaber, Gasteizko udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzairen.

Proposatutako aldaketaren helburua da herrietako espazio libre eta berdeguneetan egoteko eta jolasteko guneak eta kirola egiteko gune txikiak ahalbidetzea, baldin eta bizitegi-bilbearen barruan badaude eta sistema orokorraren izaera (plaza eta parkeak) ez badute, eta baimena ematea estaltzeko, osorik itxi gabe, baldin eta bateragarria bada ingurunearen kultur identitatea gordetzearekin eta aurretik dauden elementuak babestearekin; hartara, horrelako erabilera eta obren oraingo debekua hirira mugatzen da.

Horretarako, batetik aldatu egin da indarrean dagoen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen 5.03.39 artikulua (berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzen duena). Bestalde, 5.03.39 BIS artikulua berria txertatu da (menpeko toki erakundeei buruzkoa) eta 5.03.58 artikulua birformulatu (aireportua erabiltzeko baldintza partikularrak arautzen dituena). Horren arabera, baimena ematen da berdegune lokalak, egoteko eta jolasteko guneak eta kirol egiteko gune txikiak estaltzeko, osorik itxi gabe.

Menpeko toki erakundeetan tokiko sistema gisa sailkatutako berdeguneak eta espazio libre elkartzeko, erlazionatzeko eta aisialdirako lekutzat erabil daitezkeen sustatzeko interesetik datoz aldaketa honen egokiera eta beharra. Arrazoi horiek aldaketaren premia eta beharra justifikatzeko ere balio dute. Aldaketa hau udalerriko nekazaritza eremura mugatzen da. Aldaketaren proportzionaltasuna eta efizientzia xedea lortzeko beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipiotik eratortzen da; azkenik, aldaketaren segurtasun juridikoa eta gardentasuna ezarritako prozeduraren arabera kudeatzearen emaitza izango dira.

Adierazitakoak kontuan hartuta, zuzenbideko oinarri hauek dira aplikagarri:

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dute plangintza orokorraren funtsezko edukia eta eduki hori formulatzeko gutxieneko dokumentazioa. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 20ko 2/2006 Legea garatzen duena— 30. artikuluan xedatzen du antolamendu xehatua aldatzeko araudia. Bertan xedatzen denez, plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua aldatzeko, plan orokorraren aldaketaren edota plan berezi edo partzialaren figurak erabil daitezke (dagokionaren arabera), eta 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da izapidetze-prozedura.

Halaber, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 35.2 artikulua arabera, antolamendu xehatua aldatzeko, berriz, plan partzialaren edo plan bereziaren figura hartuko da eta haien prozedurari jarraituko zaio, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, 2/2006 Legearen 95. 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoa betez.

Dekretuaren 36. artikuluan xedatzen denez, plangintza berrikusteko eta aldatzeko, dekretu horretan plangintza onesteko aurreikusitako prozedura berari jarraituko zaio, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa edo sinplifikatua barne, kasuan kasu, ingurumen-ebaluazioari buruzko araudiaren arabera.

Horretaz gain, ingurumen-tramitazioari dagokionez aplikagarria da 46/2020 Dekretuaren 31.5 artikulua xedatutakoa. Bertan xedatzen denez, aipatutako artikulua 2. puntuan zehaztutako hasierako onespeneren tramitea eta entzundaldi publikorako epea —45 egun baliodun— igaro ondoren, Udalak behin-behineko onespenera emango dio dosierrari, eta ingurumen organoari bidaliko dio, hark ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan bi hilabete epean; horrela egiten ez bada, izapideak egiten jarraitu ahalko da.

Azkenik, Udalbatzaren eskumena da Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari behin betiko onespenera ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1. i) artikulua dioenaren arabera.

Hauek dira dosierraren tramitazioan nabarmentzekoak:

– Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariaren 2018ko urriaren 1eko probidentziaren bidez izapidetzen hastea onetsi zen, eta Gasteizko udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzairen.

– Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari nahitaezko txostena eskatu zitzaion, eta 2019ko otsailaren 26an sartu zen erregistroan. Aldaketaren alde agertu zen, baina adierazitakoak egitera baldintzatuta. Horren haritik, birformulatu egin zen aireportuaren erabilera partikularrak arautzen dituen 5.03.58 artikulua.

– 2019ko azaroaren 27an, Ingurumen Administrazio Batzordearen 2019ko azaroaren 21eko ebazpena iritsi zen, zeinaren bitartez aldaketa honen ingurumen-azterketa strategikoaren irismen-agiria formulatu zen. Kontsultatutako administrazio publikoen erantzunak ere eransten ziren. Agiri horiek kontuan harturik, udaleko zerbitzu teknikoek ingurumen-azterketa estrategikoari hasiera emateko agiria prestatu zen.

– Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran eman zion hasierako onspenera proiektuari eta aldaketari. Erabaki hori jakinarazi egin zitzaion udalerriko-administrazio batzarrei eta ingurumen-organoak alde aurretik kontsultatutako erakunde eta pertsona interesdunei. Baina ezinezkoa izan zenez elkarte guztiei jakinarazpena egitea, Ekologistak Martxan Araba, Grupo Alavés para la Defensa y Estudio de la Naturaleza, Eguzki Zaleak eta GaiaTalde Ekologista elkartei, zehazki, 2020ko irailaren 3ko BOEn (236. zk) argitaratu zen iragarkia.

– Aldaketaren agiria eta ingurumen-azterketa strategikoa jendaurrean jarri zen, xedapen-zatia 2020ko martxoaren 20ko Diario de Noticias de Álava eta Correo Español egunkariko Arabako edizioan eta 2020ko martxoaren 30eko ALHAOn (37.zk) eta Gasteizko Udaleko iragarki taulan (2020ko martxoaren 30etik ekainaren 9ra) iragarrita.

– Epe barruan ez zen alegaziorik aurkeztu, baina Euskal Kultur Ondarearen Zentroak, Historia eta Arkitektura Ondarearen Foru Zerbitzuak eta Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak egindako txostenak sartu ziren erregistroan. Horietan adierazitako gomendio eta errekerimenduak aldaketa-agirian erantsi dira, oroitidazkian adierazi bezala. Era berean, hainbat zuzenketa egin zen ingurumen-azterketa estrategikoaren agirian. Hasierako onespena jaso zuen agiriaren aldean aldaketa txikiak dira, ez funtsezkoak, eta agiri horretako edukiaren osagarri.

– 2021eko urtarrilaren 15ean, URA -Uraren Euskal Agentziaren txostena jaso zen, eta bertan hainbat oharpen egiten zituen aldaketaren aldeko txostena egin zezan. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena ere jaso zen.

– Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuran eman zion behin-behineko onespena HAPOaren xedapen-aldaketa honi.

– 2021eko otsailaren 23an, ingurumen deklarazio estrategikoa eskatu zen, eta 2021eko irailaren 1ean jaso zen deklarazio hori formulatzen duen ingurumenaren kalitateko zuzendarriaren ebazpena. Ontzat jotzen du ingurumen alderdiak planaren proposamenean sartzea, eta planean gehitzeko hainbat zehaztapen egin ditu, ingurumen-ondorioetarako. URAren txostenean jasotako oharpenak ere ere jasotzen ditu. Behin betiko onesteko hirigintza-agirian horiek guztiak jaso dira.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian jasota daude xedea, ekimena, aldaketaren komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, inpaktu sozio-linguistikoa, genero-ikuspegia, inpaktu akustikoa, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa eta iraunkortasun ekonomikoa. Era berean, ingurumen deklarazio estrategikoa, planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa jasotzen ditu.

Xedapen-aldaketaren oroitidazki hau behin-behineko onespena jaso zuen berbera da, baina Ingurumen deklarazio estrategikoa ezarritako zehaztapenak gehituta, zein horiek duten izaera dela eta ezin dira agiriaren funtsezko aldaketatzat jo. Doktrinaren arabera, planeamenduaren aldakuntza bat funtsezkotzat jo dadin aukeratutako planeamendu-eredua aldarazi behar du, hau da, zerbait ezberdin bihurtu, eta funtsezko egitura aldatu edo eskema berria ekarri, oinarritzko ildo eta irizpideak zein egitura bera errotik aldatzeko moduan. Agirian gehitutakoek ez dute planeamendua aldatzen, zentzu horretan.

Proposatzen den plangintza aldakuntzarekin bat etorritik, dosierren parte diren hirigintzako agiriak haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarrii buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

#### Erabakia

Lehen. Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko nekazaritza-eremuko berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko Gasteizko HAPOan egin nahi den xedapen-aldaketa, dosierrean jasotako 2021eko iraileko oroitidazkiaren arabera.

Bigarrena. ALHAOean argitaratzea erabaki hau eta aipatutako aldaketaren hirigintza-arauak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Ingurumen-txosten estrategikoa 2021eko urriaren 4ko EHAAn argitaratu zen, 198. zenbakian. Dosierreko dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-espaziolibreaklandaeremuetan](http://www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-espaziolibreaklandaeremuetan).

**Aldatutako araudia****5.03.39 artikulua. Hiriko gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak**

Menpeko toki erakundeetan izan ezik, baldintza partikularrak espazioen neurrien arabera arautzen dira, eta 10.000 m<sup>2</sup> baino gehiago dituztenak eta azalera hori baino txikiagoak direnak bereizten dira.

**1. Kirol-erabilera estali gabeko instalazioetan:**

a) 10.000 m<sup>2</sup>e-ko azalera baino handiagoa dutenetan baimenduko da eta berdegunearen edo espazio librearen azalera osoaren ehuneko 10 hartuko du gehienez; erabilera osagarrietarako atxikitako eraikin txikiak ere onartuko dira eta, gehieneko azalera, azalera osoaren ehuneko 0,5 izango da. Instalazio horiek hesien bidez ixtea debekatuta dago.

b) 10.000 m<sup>2</sup>e baino azalera txikiagoa dutenetan debekatu egingo da.

**2. Estalitako instalazioetako kirol-erabilera debekatuta dago bi kasuetan.****3. Kultur ekipamenduen erabilera:**

a) 10.000 m<sup>2</sup>e baino gehiago dituztenetan onartuko da, baina berdeguneen edo espazio librearen ehuneko 1 hartuko du gehienez. Azken forjatuaren goiko aurpegiaren gehieneko altuera 3,5 m-koa izango da.

b) 10.000 m<sup>2</sup>e baino gutxiago dituztenetan onartuko da, baina berdeguneen edo espazio librearen ehuneko 0,5 hartuko du gehienez. Azken forjatuaren goiko aurpegiaren gehieneko altuera 3,5 m-koa izango da.

4. Izaera iraunkorra duten kultur jarduerak edo aisialdirako jarduerak debekatuta daude bi kasuetan.

**5. Lur azpiko aparkalekuak:**

a) 10.000 m<sup>2</sup>e baino gehiago dituzten berdeguneen kalifikazio xehatueta baimenduko dira, baina gehieneko okupazioa ehuneko 40 izango da eta lur azpian hiru solairu egin ahal izango dira gehienez.

Horien instalazioaren ondorioz ez dira zuhaitz-espezie interesgarriak moztuko eta, gutxienez, 1,50 m-ko lodiera izango duen lurra ezarriko da, 1 m-ko sakonera duen sestratik neurtuta.

b) 10.000 m<sup>2</sup> baino gutxiago dituzten berdeguneen kalifikazio xehatueta baimenduko dira, baina gehienez, hiru solairu izango dituzte lur azpian; okupazio-mugarik ez da izango, baina, gutxienez, 1,50 m-ko lodiera izango duen lurra ezarriko da, 1 m-ko sakonera duen sestratik neurtuta.

c) Espazio libreen kalifikazio xehatueta a) eta b) puntueta zehaztutako ehuneko eta solairu-kopuru berbera onartuko da, horien azalera kontuan izanik. Espazioaren neurriaren, ezaugarrien, helburuaren eta diseinuaren arabera, eskatutako lur-geruzaren lodierari buruzko araua betetzea ez da derrigorrezkoa izango.

6. Bi kasuetan, edariak, egunkariak, loreak etab. saltzeko kioskoen ezarpena Udalak ezarritako kontzesioen erregimen orokorraren arabera egingo da.

7. Kasu hauetarako, sestraren gainean baimen daitezkeen jardueren batura osoa, gehienez, ehuneko 16koa izango da 10.000 m<sup>2</sup>e-ko azalera baino handiagoa dutenean eta ehuneko 0,5ekoa txikiagoak direnean.

8. Bi kasuetarako, lurpeko espazioak eraikitzea baimentzen da, salgaien zamaketa-lanak eta jardura logistikoa erraztearren, baldin eta antolamenduan eta espazio publikoan eskumena duten udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egiten badute, eta bertan horren bideragarritasuna jasota uzten.

9. Eraikinak elkarren artean lotzeko zaldainak eraikitzea baimentzen da, eraikin horien artean oinezkoen joan-etorria erraztearren, baldin eta espazio publikoaren antolamenduaren alorrean eskumena duten udal zerbitzu teknikoek zaldainaren eraikuntza bideragarria dela dioen aldeko txostena egiten badute, non zaldainaren neurriak, estetika, galiboa eta egoki deritzen beste xehetasun batzuk ere zehaztuko diren.

#### **5.03.39 BIS artikulua. Menpeko toki erakundeetako gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak.**

1. Menpeko toki erakundeetako espazio libre eta berdeguneetan musika-kioskoak, egoteko zonak, autobus-markesinak eta jolasteko eta kirola egiteko eremu txikiak onartzen dira, baldin eta bizitegi-bilbearen barruan badaude. Berariaz salbuesten dira Armentiakoko basilikaren inguruko belardia, Zadorrako parke lineala, Estibalizko muinoa, baita lurzoru urbanizagarriko sektore hauek ere: 21 zenbakikoa, Jundiz mendebaldeko handitzea, Margarita herriaren inguruan; 30 zenbakikoa, Berroztegietan herriaren ekialdean, eta 33 zenbakikoa, Gamarran; orobat, Salburuko Kontserbazio Eremu Berezikoa/Hegaztientzako Babesgune Eremu Bereziaren, Elorriaga ondoan.

2. Deklaratutako KEBetako babes-zona periferikoetan, interes komunitarioko habitatetan eta espezie babestuen zabalkunde eremuetan ezer egin nahi bada, eraginen balioespena beharko da, eta zuhaitz edo zuhaixka autoktonoek hartutako azalerak saihestuko dira.

3. Uholde-arriskua duten eremuetan kokatutako berdegune edo espazio libre publikoetan, horri buruzko araudi espezifikoa bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde-Plan Sektorialaren E2 atala eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9bis, 9ter eta 14bis artikuluetan, baita Uholde-arriskua Kudeatzeko Planaren egiturazko neurriak ere, aipatutako planean definitutako Uholde-arrisku Adierazgarriaren Eremua batekin bat datorren eremua bada.

Kioskoak lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo kokatu beharko dira, eta lehendik zegoen arrisku-egoera ez larriagotzea eta hirugarrenei ez eragitea bermatuko da azterketa edo analisi hidraulikoen bidez. Lehentasunezko fluxu-eremuan ere ezingo da aparkalekurik egin, edo gauzaten diren kirol- edo jolas-eremuen osagarri edo osagarri jarri, eta itxiturek, partzialak izan arren, iragazkorrak izan beharko dute.

4. Orobat, aintzat hartu behar da proposatutako erabilera eta jarduerak aurretik zeuden espazioen, higiezinaren eta elementuen kultur babesarekin bat etortzea (bideak, elizak, etxeak, dorreak, gurutzeak, harrizko zutabeak, iturriak, askak, arraskak, errotak, zubiak eta beste), baita berariaz deklaratu, proposatu edo inbentariatu ez direnak ere, hala nola garai bateko vasconavarro trenbidea.

5. Aurretik dauden elementu natural eta kulturalak babestearekin bateragarria denean, jolasteko guneak eta musika-kioskoak estaltzea izango da, osorik itxi gabe; bolatokiak eta autobus-markesinak ere estali ahalko dira, eta partzialki itxi, baina gutxienez albo bat —alderik luze-nari dagokiona— irekita utzita, elementuaren berezko ezaugarri tipologiko eta morfologikoak errespetatuta eta espazio publikoan eta inguruko higiezinetan ahalik eta eragin txikiena eginda.

6. Estalitako elementuek bolumen prismatiko erregularrak izan beharko dituzte, eta estalkietan plano inklinatuak baimenduko dira, gehienez ere ehuneko 50eko maldarekin.

7. Estalkien gailurrerainoko gehieneko altuera ez da 5 metrotik gorakoa izango, eta puntu bakoitzean beste eraikin batzuetarako atzeraemangunea puntu horretako gutzizko altuera baino handiagoa izango da.

8. Erabilitako materialek Lautadako herri-arkitekturan erabili ohi diren koloreak eta testurak izango dituzte, kolore bizi-bizirik eta testura distiratsuak saihestuz.

**5.03.58 artikulua. Aireportu-erabileraren baldintza partikularrak**

1. Erabilera xehatuaren berezitasuna dela eta, instalazioen ezaugarriak ordenantza espezifikoen bidez zehaztu beharko dira, eta dagokion antolamenduan sartu.

2. Garraioen erabilera globalari buruzko arauetan eta aplikatzekoak diren sektore-legeetan xedatutakoa hartuko da kontuan: Aireportuen Legea, Aire Nabigazioari buruzko Legea, zortasun aeronautikoei buruzko 1972ko otsailaren 24ko 548 Dekretua (martxoaren 21eko BOE), heliportuei dagozkien zortasun aeronautikoei buruzko 1975eko uztailaren 11ko Dekretua (abuztuaren 11ko BOE), Aireportuen eta haien Zerbitzu Eremuaren Antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua (abenduaren 29ko BOE), Gasteizko Aireportuaren Plan Zuzentzailea onetsi zeneko Sustapen Ministerioaren 2001eko uztailaren 17ko Agindua (2001eko abuztuaren 7ko BOE, 188. zk.) eta horiekin bat datozen edo horiek garatu edo ordeztzen dituzten gainerako araudiak.

3. Gasteizko Aireportuko Sistema Orokorren eremuan, erabilera onargarri bakarra aireportuetako erabilera publikoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 12an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**